



586 eredia

Aitorpen zenbakia

Ekitaldi berean aitorpen bat baino gehiago aurkeztuz gero, dagokion aitorpenaren hurrenkera-zenbakia agertu behar da.

Ordezko aitorpena

Aitorpena ordezkoa bada, hau da, aitorpenaren xedea aurreko beste bat deuseztu eta erabat ordeztea bada, hartan datu batzuk oker adierazi direlako, X batez adieraziko da.

Aitorpen osagarria

Aitorpena osagarria denean, hau da, aitorpenaren xedea ekitaldi bereko beste aitorpen batean, dagoeneko aurkeztuta dagoen batean, sartu behar eta ahaztu diren hartukizun batzuk sartzea denean, X batez adieraziko da. Aitorpen osagarrian lehengo aitorpenean ahaztu diren hartukizunak soilik sartuko dira.

Ekitaldia

Autolikidazioari dagokion urteko lau zifrak jarriko dira.

Jarduera kodea

GFJa adierazi behar da, zergapekoak egiten duen eta aitorpenaren xede den jarduera identifikatzeko.

Aitortzailearen identifikazioa

Aitorpenean agertzen den zergapekoaren IFZa, izen-abizenak edo sozietate-izena adieraziko dira.

Eskurapena, Europar Batasunaren barruko eskurapena edo inportazioa

Aitortzailearen identifikazioa. Zutabe hau aitortzailea GFJ baten baino gehiagoren titularra denean baino ez da bete behar; izan ere, haietako bakoitzari dagozkion eragiketak bereiz jaso behar dira. «Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Autolikidazioa» 587 eredia onartzen duen foru aginduan jasotakoak dira jarduera-gakoak.

Hornitzailearen identifikazioa: Datu hauek eman behar dira:

Eragiketa mota: 1, 2 edo 3 jarri behar da, aitorpenaren xede den eragiketa-mota kontuan hartuta: Espainian egindako eskurapena, Europar Batasunaren barruko eskurapena edo inportazioa, hurrenez hurren.

Abizenak eta izena edo sozietatearen izena: Hornitzailearen abizenak eta izena edo sozietatearen izena jarri behar dira.

IFZ: Hornitzailearen IFZ jarri behar da.

BEZaren IFZ: Hornitzailearen IFZrik izan ezean, hornitzailearen BEZaren IFZ jarri behar da

ADBa: Hornitzailearen IFZrik edo BEZaren IFZrik izan ezean, inportazioari dagokion ADBa jaso behar da.

GFJ: Izanez gero, hornitzailearen GFJa, «Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Autolikidazioa» 587 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat etorrira.

Produktuaren identifikazioa: Datu hauek eman behar dira:

Epigrafea: Zergari buruzko foru arauaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera jaso behar da epigrafea.

Kudeaketa-kodea: Aitorpenaren xede diren gasei dagokien kudeaketa-kodea jaso behar da, «Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Autolikidazioa» 587 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat etorrira.

Zergapeko kantitatea eta ez salbuetsitakoa: 586 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da aitorpenaren xede diren gas fluordunak direla-eta zer kantitate dagoen zergapean (salbuesteko zerga-onurarik gabe).

Zergapeko kantitatea eta salbuetsitakoa: 586 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da aitorpenaren xede diren gas fluordunak direla-eta zer kantitate dagoen zergapean eta salbuetsita.

Zergari lotu gabeko kantitatea: 586 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da aitorpenaren xede diren gas fluordunak direla-eta zer kantitate ez dagoen zergapean.

Kopuruak kilogramotan adieraziko dira, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.

Salmenta, ematea edo autokontsumoa

Aitortzailearen identifikazioa. Zutabe hau aitortzailea GFJ baten baino gehiagoren titularra denean baino ez da bete behar; izan ere, haietako bakoitzari dagozkion eragiketak bereiz jaso behar dira. «Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Autolikidazioa» 587 eredia onartzen duen foru aginduan jasotakoak dira jarduera-gakoak.

Hartzailearen identifikazioa: Datu hauek eman behar dira:

Eragiketa mota: 1, 2, 3, 4, 5 edo 6 jarri behar da, aitorpenaren xede den eragiketa-mota kontuan hartuta: zergapeko salmenta edo ematea, zergapeko salmenta edo emate salbuetsia, zergapekoa ez den salmenta edo ematea, zergapeko autokontsumoa, zergapeko autokontsumo salbuetsia edo zergapekoa ez den autokontsumoa.

Espainiako lurraldean egindako salmenta edo emate bat aitortzen bada, 1 jarri behar da eragiketa motan, eta datu hauek jarriko dira hartzailea identifikatzeko: izen-abizenak edo sozietate-izena, IFZ eta GFJa, halakorik badu.



Espainiako lurraldetik kanpo eta Europar Batasunaren barruan dagoen hartzaile bati egindako salmenta edo emate bat aitortzen bada, 2 jarri behar da eragiketa motan, eta datu hauek jarriko dira hartzailea identifikatzeko: izen-abizenak edo sozietate-izena, BEZaren IFZ.

Europar Batasunetik kanpo dagoen hartzaile bati egindako salmenta edo emate bat aitortzen bada, 3 jarri behar da eragiketa motan, eta, hartzailea identifikatzeko, esportazioari dagokion ADBa jarriko da.

Autokontsumo bat aitortzen bada, 4 jarri behar da eragiketa motan, eta datu hauek jarriko dira hartzailea identifikatzeko: izen-abizenak edo sozietate-izena, IFZ eta aitortzailearen GFJa.

Abizenak eta izena edo sozietatearen izena: Hartzailearen abizenak eta izena edo sozietatearen izena jarri behar dira.

IFZ: Hartzailearen IFZ jarri behar da.

BEZaren IFZ: Hartzailearen IFZrik izan ezean, hartzailearen BEZaren IFZ jarri behar da.

ADBa: Hartzailearen IFZrik edo BEZaren IFZrik izan ezean, esportazioari dagokion ADBa jaso behar da.

GFJ: Izanez gero, jasotzailearen GFJa, «Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Autolikidazioa» 587 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat etorrita.

Produktuaren identifikazioa: Datu hauek eman behar dira:

Epigrafea: Zergari buruzko foru arauaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera jaso behar da epigrafea.

Kudeaketa-kodea: Aitorpenaren xede diren gasei dagokien kudeaketa-kodea jaso behar da, «Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga. Autolikidazioa» 587 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat etorrita.

Zergapeko kantitatea eta ez salbuetsitakoa: 586 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da aitorpenaren xede diren gas fluordunak direla-eta zer kantitate dagoen zergapean (salbuesteko zerga-onurarik gabe).

Zergapeko kantitatea eta salbuetsitakoa: 586 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da aitorpenaren xede diren gas fluordunak direla-eta zer kantitate dagoen zergapean eta salbuetsita.

Zergari lotu gabeko kantitatea: 586 eredia onartzen duen foru aginduan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da aitorpenaren xede diren gas fluordunak direla-eta zer kantitate ez dagoen zergapean.

Kopuruak kilogramotan adieraziko dira, bi zenbaki hamartar jarrita, eta operadore eta epigrafearen arabera taldekatuko da.